

OINARRI ARAUTZAILEAK, DONOSTIAKO GASTRONOMIAREN ARLOAN TALENTU GAZTEEN ENPRESA EKIMEN BEREZI BERRIEN HAZKUNDEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO EKINN+ GASTRO 2024 PROGRAMARENAK, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU-K FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

SARRERA

Donostiako Udalak toki entitateen inbertsio jarduketan finantzaketan parte hartzea eskatu zuen, Europar Batasunak onetsiriko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan —eta, zehazki, plan horretako 2. azpineurriko 1. inbertsioa izeneko 14. osagaiaren esparruan—.

Kontuan harturik Donostiako Udalaren dirulaguntza eskaera, Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Laguntza emateko Ebazpena (ebazpen horrek Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen du, eta haren bidez ezartzen dira toki erakundeek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 1. inbertsioko 14. osagaiaren esparruan inbertsio-jarduerak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak eta autonomia-erkidegoetarako ondoriozko banaketa), eta, aintzat harturik, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez) eta Donostiako Udalak Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (DONOSTIAKO ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRIA ETA BERRITZAILEA) gauzatzeko egindako hitzarmenean ezarritakoa, zeina Europar Batasuneko Next Generation EU Funtsek finantzatutako 2022 Turismo Enogastronomikoaren Plan Nazionalaren barruko jarduera baita.

Ekintzaitzaren jarduera eremuaren barruko 4. ardatzaren barruan (Lehiakortasuna), 6. jarduerak (Esperientzia gastronomikoan oinarritutako proiektu berritzaile ekintzaileak hobetzea) ekintza hauek aurreikusten ditu: Gastronomía esperientzian oinarritutako proiektu berritzaileen ekintzaitza programa edo laborategia.

Aisia turismoa sektore estrategikoa da Donostian enogastronomiaren esparrua garatzeko. Izan ere, enpleguaren esparruan ehuneko puntu erdi egin du gora urtebetean, eta gaur egun enpleguaren % 8,3 sortzen du hirian (Eustaten datuak, 2022ko abenduaren 31koak). Aldi berean, establezimenduen kopuruak goranzko bilakaera izan du 2014az geroztik, % 10etik gorakoa. Bi adierazle horiek erakusten dute gero eta garrantzi eta inpaktu handiagoa duela gure hirian. Hori horrela, sektore hori Donostiako barne produktu gordinaren % 5,2 da gaur egun, establezimenduen % 7,9 eta enplegu osoaren % 8,3.

Sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko, Donostiako Udalak enpresa ekimenei ematen dien laguntza indartzea du helburu, betiere proiektuei laguntza integrala eta pertsonalizatua emateko ikuspegia oinarri gisa harturik, eta, bide horretan, plano bereizgarriak integratzen ditu, hala nola giza baliabideen kudeaketa, finantza kudeaketa, sustapena edo komunikazioa. Hori dela eta, Donostiako Udalak **Ekinn+ Gastro Programa** artikulatu du. Programa horrek, gastronomiaren arloan talentua duten pertsonen identifikazioa abiapuntu gisa hartuta, enpresa

proiektuen garapena eta hazkundera bultzatuko du, betiere laguntza eman diezaieketen sektoreko beste eragile batzuekin sarean egindako lanak indartuta. Hori horrela, negozio gastronomikoko lankidetzaren eredu berriak garatzeko hazkuntza eremu egoki bat sortuko da, betiere berrikuntza eta jasangarritasun irizpideek bultzaturik.

Donostiako Udalak ez du behar adina giza baliabide eta baliabide material aipaturiko programa behar bezala garatzeko, eta, horrenbestez, egokitzat jotzen da eginkizun horretarako erakunde laguntzaile bat izendatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horren 2. apartatuan xedatzen denez, erakunde laguntzaile hartu ahal izango dira Administrazio Publikoen partaidetza erabatekoa edo nagusia duten merkataritza sozietateak.

Donostia Sustapenak 2023an sendotu egin du estrategia eta kudeaketa-eredu berri bateranzko trantsizioaren aldeko apustua, eta hirian berrikuntzaren erreferentzia bilakatzera bideratu du eredu hori, ardatz gisa harturik Donostiako Berrikuntza Agentziaren rola izatea.

Horrek esan nahi du Donostia Sustapenaren apustua dela pertsonen, enpresei eta proiektuei laguntzea abiapuntu gisa harturik pertsonalizazioa, kalitatea eta foku estrategikoa, eta hori guztia hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan egin nahi du. Bilakaera horri eta markatutako helburuak bete izanari esker, zenbait ildo landu zituen 2023an ostalaritzaren esparruan, sektoreari aurre egin beharreko erronken neurriko laguntza emateko, guztia ere tokiko sare ekonomikoari modu transbertselean aplikatutako berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoaren barruan.

Hala, sektoreak 400.000 euro baino gehiago izan zituen laguntzatan, Sustapen Planaren esparruan. Aldi berean, sektoreko 140 enpresa baino gehiago izan ziren beren lehiakortasuna indartzea ahalbidetu zuten zerbitzuen eta/edo laguntzen onuradun, eta, era berean, esparru horretan sektorearekin sortutako jarduerari esker, 20 enpresa proiektu berri baino gehiago sortu ziren, baita 220 lanpostu berri baino gehiago ere.

Aurrekoa kontuan harturik, Donostiako Sustapena SAK esperientzia handiko bitartekoak ditu dirulaguntzen eta laguntzen kudeaketan, bai eta Europako funtsen kudeaketan ere, eta, kontuan izanik haren espezializazio maila, erakunde egokia da erakunde laguntzaile gisa jarduteko.

Programa hau Helmutzako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (DONOSTIAKO ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRIA ETA BERRITZAILEA) proiektuko jardueren barruan dago. Turismo Enogastronomikoaren 2022ko Plan Nazionalaren barruko jardueraren baita, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatua eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek finantzatua.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premia neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 61.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileek jaso ahal izango dute haien deialdia», eta, hori kontuan harturik, batera ematen dira ontzat laguntza hauen oinarriak eta deialdia 2024ko ekitaldirako.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.- Araudi honen xedea da 2024ko ekitaldirako **dirulaguntzen** oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea, norgehiagokako araubidean, helburu gisa harturik gastronomiaren arloko enpresa ekimenei laguntzea, hiriaren erronka handienetako bati aurre egiteko: hau da, Donostia munduko hiriburu gastronomikoen artean mantentzea, nortasun propioa duen proposamen gastronomiko bat eskaintzeko gai den belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz.

2.- Dirulaguntzat jotako funts publikoen diru erabilera, zuzeneko kontraprestaziorik gabea, oinarri hauen 8. artikuluan diruz laguntzeko modukotzat jotako inbertsioak eta gastuak egiteko.

3.- Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzak Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (**DONOSTIAKO ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRIA ETA BERRITZAILEA**) proiektuaren barruan daude. Hain zuzen ere, Turismo Enogastronomikoaren 2022ko Plan Nazionalaren barruko jarduera bat da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatua eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek finantzatua.

Zehazki, Donostiako Udalaren Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana —hor barruan dago sartuta proiektu hau— Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 218. helburuaren barruan sartzen da (turismoaren jasangarritasuneko planetarako aurrekontua esleitzeari buruzkoa), bai eta 220. eta 221. mugarrien barruan ere (Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak egikaritzeari eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak amaitzeari buruzkoak, hurrenez hurren).

4.- Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio), alde batera utzi gabe aplikagarriak izan daitezkeen zuzenbide nazionaleko eta EBko gainerako xedapenak, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eta kudeatzeko esparruan onesten direnak. Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berriazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fisikaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fisikaletan eta aurreko bi ekitaldi fisikaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

5.- Dirulaguntza-lerro hau Donostiako Udalaren 2024-2026 Baterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta honako erakunde instrumental hauen Plan Estrategikoan dago jasota: Kiroletako Udal Patronatua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa eta Donostiako Sustapena SA, 2024ko martxoaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsia, dirulaguntza honi dagokion planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoa lortzen laguntzeko. Hauexek dira, hain justu:

Helburu estrategikoa: 13. Berrikuntza, ekonomia eta enplegua bultzatzea.

Gastronomiaren alorrean, jatetxeetako enpresa ekimenei laguntzea, hiriaren erronka handienetako bati aurre egiteko: hau da, Donostia munduko hiriburu gastronomikoen artean mantentzea, nortasun propioa duen proposamen gastronomiko bat eskaintzeko gai den belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz. Errelebo horrek gastronomiaren arloan talentua duten pertsonak identifikatzea eskatzen du, bai eta jatetxe eta sukaldaritza arloko proiektuak garatzen laguntzea ere.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN HELBURUA ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK

1.- Ekin+ Gastro Programaren helburua da gastronomiaren arloko enpresa ekimenei laguntzea, hiriaren erronka handienetako bati aurre egiteko: hau da, Donostia munduko hiriburu gastronomikoen artean mantentzea, nortasun propioa duen proposamen gastronomiko bat eskaintzeko gai den belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz. Errelebo horrek gastronomiaren arloan talentua duten pertsonak identifikatzea eskatzen du, bai eta jatetxe eta sukaldaritza arloko proiektuak garatzen laguntzea ere.

2.- Ekin+ Gastro Programa Donostian kokatutako eta gazteek zuzenduriko enpresei zuzenduta dago, betiere gastronomiaren arloan eskalagarritasun eta ibilbide potentziala duen jatetxe arloko enpresa proiektu bat garatzen badute.

Ekin+ Gastro Programa laguntza tresna integral gisa aurkezten da, eta ildo hauek biltzen ditu:

- **Aholkularitza espezializatua:** Sektoreko eragile eta enpresa adituek eskaintako laguntza prozesua, sukaldari gisa eta negozio errentagarrien kudeatzaile gisa dituzten gaitasunak hobetuz, berrikuntza eta jasangarritasun irizpideei segiturik.
- **Laguntza ekonomikoa,** inbertitzeko eta negozioaren aldeko apustua egiteko.
- **Finantzaketa eskura ipintzea,** lehentasunezko baldintzetan, barnean harturik Elkargiren abal funtsak.
- **Sustapenean, nabaritasunean eta posizionamenduan laguntzea,** sektoreko profesionalak eta gastronomiazaleek proposamen horiek ezagutu eta balioets ditzaten, hala estatuan nola nazioartean.

3.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak gehienez **30.000 €** (HOGEITA HAMAR MILA EURO) izango dira onuradun bakoitzeko, eta laguntzaren intentsitatea, oro har, diruz lagundu daitezkeen gastuen % **100ekoa** izango da.

4.- Donostiako Udalak laguntza bakarra eman ahal izango du onuradun bakoitzeko.

3. ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

1.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Donostiako Sustapena SA udal sozietatea erakunde laguntzailatzat hartuko da oinarri hauetan jasotako laguntzak kudeatzeko, eta Donostiako Udalaren eta erakunde horren arteko lankidetzak hitzarmenean zehaztuko dira horretarako baldintzak.

2.- Eginkizun hori betetzeko, Donostia Sustapenak, dirulaguntzak izapidetzen dituen erakunde gisa, «leihatila bakar» gisa jardungo du, bai eskabidea egiteko, bai dagokion dokumentazioa jasotzeko eta izapidetzeko.

4. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren dirulaguntzak, oinarri horietan xedatutakoaz gainera, deialdiaz eta dirulaguntza emateko ebazpenaz arautuko dira, arau hauetan xedatutakoaren arabera:

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema konfiguratzeko duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia erkidegoko eta tokian tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagaien neurrien mugari eta helburuen betetze mailaren eta aurrekontu eta kontabilitate betearazpenaren jarraipena egiteko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkak izateko arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.
- Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpena, Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez ezartzen baitira jarduketak finantzatzeko kredituaren banaketa-irizpideak eta autonomia-erkidegoetarako ondoriozko banaketa.
- Ebazpena, 2023ko abenduaren 29koa, Turismoko Estatu Idazkaritzarena, Turismoaren Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki hori 2023ko abenduaren 29ko Erabakiaren bidez aldatu zen, eta erabaki horren bidez, toki-erakundeek inbertsio-jarduketak finantzatzeko kreditua –planaren esparruaren barruan– autonomia-erkidegoei banatzeko irizpideak eta horien ondoriozko banaketa ezarri ziren.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez) eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena, Euskadiko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzekoa eta Donostian esperientzia enogastronomiko jasagarria eta berritzailea eskaintzekoa.
- Aldaketako gehigarria, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Donostiako Udalak Donostia/San Sebastiánen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana egikaritzeko egindako hitzarmenari dagokiona, Euskadi Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planari dagokiona, 2022an finantzatu zena, Europako Batasunaren Berreskurapen Planaren barruan.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko akordioa argitaratzeko. Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez egin zen publiko (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).
- Erabakia, Gobernu Kontseiluarena, 2022ko martxoaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzean eskatzen den *Iruzuraren, interes gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren, estatu laguntzen eta ingurumenerako kalte ez-nabarmenen aurkako betekizunak betetzeko neurrien Plana* onesten duena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua, zeinaren bidez publiko egiten baita aipaturiko erabakia; EHAA, 74. zk., 2022ko apirilaren 13koa).

2.- Halaber, aplikatzekoak izango dira, batetik, Donostiako Udalaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 15ean onetsia, eta plan horretatik eratorritako betebeharrak, eta, bestetik, Donostia Sustapenaren Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onetsitako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana.

3.- Era berean, erakunde onuradunek nahitaez bete beharko dituzte dirulaguntza ematen duen administrazioak ezarritako betebeharrak guztiak, bai eta estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek ezarritakoak ere. Orobat, betetzekoak izango dira laguntza hauen onuradun izategatik finantzaketaren jatorriak ezartzen dituen gainerako eskakizunak ere.

5. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen laguntza horiek izapidetzeko eta emateko, aplikatzekoa izango da 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko. Era berean, aplikatzekoak izango dira aplikatu beharreko gainerako araudiak ere.

2.- Horretarako, LAUROGEITA HAMAR MILA EURO (90.000 €) bideratuko dira programa honetara, Ekinn+ Gastro Programa finantzatzeko.

3.- Donostiako Udalak berea du laguntza programa honetara bideratutako zenbatekoa edo finantzatu beharreko eskabideen kopuru osoa aldatzeko eskubidea. Kasu horretan, beharrezko jakinarazpenak egingo eta iragarkiak argitaratuko ditu, interesa izan dezaketen guztiek horren berri izango dutela bermatzeko.

4.- Oinarri eta deialdi honetan araututako laguntzak gauzatzeko eskuragarri dauden funtsek ez dute ez etiketa klimatikorik, ez etiketa digitalik.

6. ARTIKULUA. ONURADUNAK

1.- Laguntzaren onuraduntzat hartuko da dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatu behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak guzti-guztiak betetzen baditu.

2.- Laguntzen onuradunak jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak izango dira, pribatuak, nazionalak edo atzerriarrak, baita aurrekoen nortasuna ez duten taldeak ere, baldin eta oinarriotan zehaztutako eskakizunak biltzen dituzten ordenamendu juridikoaren arabera eratuta badaude. Bazterturik geratzen dira ondare sozietateak; hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

3.- Oinarriotan zehazten dira laguntzak eskatzeko bete behar diren eskakizunak, baita eskakizun horiek egiaztatzeko modua ere; halaber, nahitaez bete beharko da Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako guztia, zeina berariaz aplikatzekoa izango baita ondore hauetarako.

4.- Horrenbestez, pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dute laguntza jaso:

a) Ez baldin badituzte egunean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean den legeriak ezartzen duen moduan.

b) Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuta badaude, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, barnean harturik sexu diskriminazioa egiteagatik zigortu dituztenak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; era berean, ezingo dira izan laguntza eta dirulaguntza horien onuradun sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak, betiere zehapen horretan ezarritako epean. Era berean, ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik berdintasun plan bat indarrean ez daukaten enpresek, baldin eta estatuko araudiaren arabera horretara beharurik badaude, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute

egiaztatu ezarri dituztela neurriak sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta halako egoerei aurre egiteko, guztia ere estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.

- c) Zorrak baldin badituzte Donostiako Udalarekin edo/eta Donostia Sustapenarekin.
- d) Itzultzeke baldin badituzte, erabat edo partzialki, aurrez eskuratutako laguntzak, harik eta egiaztatu arte bueltatu dutela itzuli beharreko zenbatekoa.

5.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko. Gainera, administrazio jarduleak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du jarraian zehazten den informazioa administrazio publiko eskudunekin, prozedura honetako ebazpena emateko eta ordainketak egin ahal izateko:

- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueraren gaineko zergaren (EJZ) epigrafeak.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.

7. ARTIKULUA. ONURADUNEN ESKAKIZUNAK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO

1.- Onuradunek eskakizun hauek bete behar dituzte deialdian parte hartzeko:

- a. Pertsona fisiko edo juridikoa izatea, pribatua, eta Donostiako udal mugartean edukitzea lantokia eta jarduera.
- b. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, ekonomia jardueren gaineko zergan (JEZ) alta emanda egotea, gehienez ere 8 urteko antzinatasunarekin.
- c. Horretaz gainera, enpresa txiki bat edo mikroETE bat izan beharko du eskaera egiten den unean. Enpresa txikitzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen dituztenak.

I. Ustiapen ekonomiko bat gauzatzea.

II. Enpresaren aktiboa edo eragiketen bolumena ez izatea HAMAR (10) milioi euro baino handiagoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean zehazten den moduan.

III. Langile taldea ez izatea batez beste 50 pertsonatik gorakoa.

IV. Ez edukitzea aurretik zehaztutako eskakizunen bat betetzen ez duten enpresen % 25etik gorako partaidetzarik, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta

ez badira arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak, zeinei aplikatzekoa izango baitzaie aurretik aipatutako foru arau horretako IV. kapituluan ezarritako araubide berezia.

Merkataritza Kodearen 42. artikulua zehaztutako moduan, entitatea sozietate talde bateko kide denean, adierazitako langile taldearen neurriak talde horretako erakunde guztiei egingo die erreferentzia.

- d. Diruz lagundutako gastuak Donostiako udalerrian dagoen establezimendura bideratzea oso-osorik.
- e. Enpresako bazkideren baten adina 40 urtetik beherakoa izatea.
- f. Gastronomiaren arloko sukaldaritza eta jatetxe enpresa proiektuak izatea, eskalagarritasun eta ibilbide potentzialarekin.
- g. Onuradunak konpromisoa hartzea gutxienez pertsona bat esleituko duela programa hau garatzera, betiere ibilbide orrian eskatutako eta hitzartutako denboran.

2.- Ezingo dira onuradun izan:

- a) Fundazioak eta elkarteak, irabazi asmokoak edo gabekoak.
- b) Ez dira izango onuradun mendeko entitateak, ez eta sektore publikoko entitateen, irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen % 25etik gorako partaidetzapekoak ere (sektore publikoko entitatetzat hartuko dira sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan bildutako entitateak; lege haren bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira emakida kontratuak esleitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

3.- Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen erakunde laguntzailea den aldetik, eskubidea du beharrezkotzat jotzen duen informazio eta ekarpen guztiak eskatzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatze aldera.

8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

1.- Ekin+ Gastro Programa laguntza tresna integral bat da, eta ildo hauek biltzen ditu:

1.1. **Aholkularitza eta mentoring espezializatua** 10 hilabetez.

Aholkularitza hori bi fasetan banatzen da:

- Fase intentsiboa (6 hilabete).
- Jarraipen fasea (4 hilabete).

Zerbitzu hauek eskainiko dira epe horretan:

- Laneko ibilbide orria diseinatzea, lortu beharreko helburuekin eta garatu beharreko mugarriekin.
- Banakako tutoretza eta mentorizazioa, proiektuaren premien arabera, 10 hilabetez, ezarritako helburuak lortzeko.

1.2. Eskuragarritasun laguntza.

Itzuli beharrik gabeko BOST MILA EUROKO (5.000 €) dirulaguntza, Ekinn+ Gastro Programan ezarritako helburuak lortzeko behar den dedikazioa ahalbidetzeko.

1.3. Ekinn+ Gastro laguntza:

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa HOGETA BOST MILA EUROKOA (25.000 €) izango da, % 100ean finantza daitezkeen dirulaguntza kontzeptu hauetarako:

- ZERBITZU BERRIKUNTZA ETA PROPOSAMEN GASTRONOMIKOA: Aholkularitza eta laguntza eskatu ahal izango da proposamen gastronomikoa garatzeko (Donostiako Sustapenak eskainitakoaz bestelakoa), bai eta jarduera ekonomikoari lotutako beharrezko inbertsioetarako ere.
- FINANTZAKETA ESKURATZEA. Kanpoko aholkularitza gisa edo finantzaketa lortzarekin lotutako inbertsio gisa eskatu ahal izango da laguntza, betiere enpresak merkatuan hazteko eta eskalatzeko aukera izatera bideraturik.
- DIGITALIZAZIOA HOBETZEA: Digitalizazioa hobetzeko aholkularitza eta babesa jasotzeko eskatu ahal izango da laguntza, bai eta jarduera ekonomikoari lotutako eta softwarean zein hardwarean behar diren inbertsioetarako ere.
- PRESTAKUNTZA: Jarduerarekin berarekin eta bazkideen prestakuntza profesionalarekin lotutako prestakuntza gastuen kontzeptuan eskatu ahal izango da laguntza, gaitasunak hobetzera bideratuta, eta kanpoan geratuko dira tituluak, bidaia gastuak, joan-etorriak, ostatuak edo edozein dieta mota lortzeko gastuak (gosari gastuak, bazkariak edo afariak).
- ESPAZIOAK EGOKITZEA: Jarduera ekonomikoari atxikitako higiezinetan ekipamendu berria erostearen ondoriozko gastuetarako eskatu ahal izango da laguntza.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasun inbentariagarriak erosten, eraikitzen, birgaitzen eta hobetzen badira, dirulaguntza eman zen xede zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ez da izango bost urtetik beherakoa, eta gainerako ondasunetarako, berriz, bi urtetik beherakoa.

- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANA: Proiektuari lotutako komunikazio eta posizionamendu gastuetarako eskatu ahal izango da laguntza. Horietan sar daitezke publizitate kanpainak, web orriaren diseinua, sare sozialena...
- MERKATU BERRIEN GARAPENA: Laguntza eskatu ahal izango da merkatu berriak garatzeko aholkularitza eta laguntza gisa. Aholkularitzarekin loturiko gastu guztiek proiektu berritzailea nazioartekotzeko plan bat izan beharko dute, eta koherentzia gorde beharko dute aurkeztutako gastuekin.

Onuradunak bere tutorearekin itunduko ditu Ekin+ Gastro Proiektuan diruz lagundu beharreko kontzeptuak, eta Donostiako Sustapenak baliozkotu eta onartu egin beharko ditu justifikatu beharreko kontzeptuak eta zenbatekoak.

1.4. Elkargi abal funtserako sarbidea

Finantzaketa Elkargiren bidez eskatu behar duten proiektuetan, Donostia Sustapenak aurkeztu ahal izango du, bere hitzarmenaren esparruan.

Donostiako Sustapenak laguntza eskainiko du abalen bidezko finantzaketa behar duten proiektuetarako eragiketak aurkezten. Elkargik ontzat ematen dituen eragiketek baliatu ahal izango dituzte Donostia Sustapenak elkarrekiko berme erakunde horrekin proiektu berritzaileak finantzatzeko sinaturiko lankidetzaren hitzarmenean jasotako baldintzak.

1.5. Sustapena, nabaritasuna eta posizionamendua

Programan parte hartzen dutenei ikusgarritasuna eta zabalkundea emango zaie komunikabide espezializatuetan eta/edo erreferentziako ekitaldi gastronomikoetan.

8.1. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa **HOGETA HAMAR MILA EURO (30.000 €)** izango da onuradun bakoitzeko, honela banakatuta:

- Eskuragarritasun laguntza: BOST MILA EURO (5.000 €), itzuli beharrik gabe, Ekinn+ Gastro Programan ezarritako helburuak lortzeko behar den dedikazioa ahalbidetzeko.
- Ekinn+ Gastro laguntza: HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €), Ekinn+ Gastro laguntza gisa. Ekinn+ Gastro Programarako laguntzaren gehieneko intentsitatea **diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100ekoa** izango da, aurkeztutako eskabide bakoitzeko gehienez ere HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €) gainditu gabe.

2.- Ordaindutako zenbatekoa ez da izango inoiz oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu eta justifikatutako gastu edo inbertsioen zenbatekoa baino handiagoa.

3.- Justifikatutako gastu guztiak laguntza justifikatu aurretik ordaindu beharko dira.

4.- Ez da onartuko eskudiruzko ordainketarik, ezta BIZUM bidez egindakorik ere.

5.- Donostiako Udalak laguntza bakarra eman ahal izango du onuradun bakoitzeko.

8.2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

1.- Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak. Adibidez: aholkularitza gastuak, aholkularitza adituaren gastuak, inbertsioak, ibilgetu materiala eta immateriala erostea, eta abar.

2.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak **2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko azaroaren 15era bitartean gauzatu beharko dira.**

3.- Diruz lagundutako gastuen eskuratze kostuak ez du gaindituko inola ere merkatuko balioa.

4.- Gastu mota hauek ez dira hartuko diruz lagungarritzat:

- Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua, eta isunak.
- Kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboei lotutako edozein gastu, nahiz eta beharrezkoak izan baimenak edo lizentziak lortzeko.
- Gastu errepikariak edo estrukturalak, eta, bereziki, herri administrazioetako langile gastuak; izan ere, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamenduaren

5. artikulua xedatzen du mekanismoaren laguntzak ez dituela ordeztuko estatuko ohiko aurrekontu-gastuak, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

- Eskatzaileak izenpeturiko aseguruak.
- Zaintza eta segurtasuna, obra gauzatzen den bitartean eta harik eta abian jarri arte.
- Edozein finantza-kostu.
- Zigor penalei lotutako kostuak eta prozedura judizialen gastuak.
- Sistema eragileetarako eta bulegotika-aplikazioetarako lizentziak.
- Administrazioaren jarduketan edo gastuen alorreko edozein eragiketa- eta mantentze-gastu.
- Gauzatan egindako ordainketak.
- Enpresan ohiko edo errutinazko jarduerak gauzatzea helburu dutenak, hau da, jasangarritasunaren alorrean hobekuntza nabarmenik ez dakartenak, betiere egungo egoerarekin alderatuta.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak; beraz, ez dira onartzen barne fakturazioko prozesuak.
- Kontabilitateko, liburu-eramailtzako, auditoretzako eta aholkularitza fiskaleko ohiko jarduerak.
- Ohiko material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.
- Ohiko gastuak eta, bereziki, argiaren, uraren eta komunikazioen gastuak (telefonoa eta interneta).
- Interesak, errekaruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari tiketak, dietak, kilometroak, gasolina, eta abar.
- Enpresako langileen soldatak eta ordainsariak.
- Lokalak birgaitzeko gastuak.
- Ez dira izango finantzarriak, orobat, Europako Batzordeak ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioarekin bat ez etortzeagatik finantzaezintzat jotako jarduera gastuak (DNSH ingelesez, *Do No Significant Harm*), Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren eranskinean jasotzen den bezala¹ —horien artean daude erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien ondorengo erabilera barne, elektrizitatea eta/edo beroa gas naturala erabiliz sortzearekin zerikusia duten proiektuak izan ezik, bai eta horiei lotutako garraio eta banaketa azpiegiturarekin zerikusia dutenak ere, betiere Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioarekin bat²—. ii) EBko isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren esparruko jarduerak, baldin eta jarduera horiekin lotuta aurreikusten bada berotegi-efektuko gasen isurpenak ez direla egongo dagozkion erreferentzia-parametroen azpitik; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumeneari kalteak eragin ditzakeen jarduerak.
- Estatuko eta EBko ingurumen-legeria betetzen duten jarduerak soilik jaso ahal izango dute laguntza.

¹https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:4f067743-ceb8-11eb-ac72-01aa75ed71a1.0002.02/DOC_2&format=PDF

²<https://www.boe.es/doue/2021/058/Z00001-00030.pdf>

- 5.- Fakturak eta froga agiriak 100 €-koak edo gehiagokoak izango dira, zergak alde batera utzita.
- 6.- Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.
- 7.- Proiektuetan diruz lagundu daitezkeen gastuak koherenteak izango dira ingurumen jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularraren printzipioarekin. Beraz, proposamenetan adierazi beharko da zer neurri mota sartzan diren helburu hauek betetzeko, aplikatu beharreko kasuetan:
 - Energia efizientiako estandarrak betetzea ekipo elektrikoak eta elektronikoak eskuratzean.
 - Elikagaiak alferrik ez galtzea, eta elikagai hondakinak murriztea.
 - Bilgarrien erabilera ahalik eta gehien murriztea eta hondakinak egokiro kudeatzea —hots, hondakinen kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera—, ekipoak, materialak, altzariak eta abar eskuratuz gero.
- 8.- Txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratze ordainagiriarekin egindako ordainketen egiaztagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagiri horietan, eragiketari buruzko informazioa zehaztu beharko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, eta abar). Ez da onartuko banku mugimenduen zerrendarik onartuko, eta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.
- 9.- Justifikatutako gastu guztiak laguntza justifikatu aurretik ordaindu beharko dira.

9. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua araberan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako inbertsio proiektuek jaso dezakete Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu estaltzen programa honen dirulaguntzak finantzatutako kostu bera. Muga horretara iritsiz gero, soberako zenbatekoan murriztuko da deialdi honetan emandako laguntza.

2.- Onuradunak organo emaileari jakinarazi beharko dio diruz lagun daitezkeen programak finantzatzeko jasotako laguntza guztiei buruzko informazioa, izan Europako Erkidegokoak, izan bestelakoak, betiere finantzaketa bikoitzaren prebentzioaren printzipioa errespetatuz. Jakinarazpen horrekin batera, dagokion esleipena edo ukapena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.- Agindu honetan ezarritako laguntzek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 2023/2831 Erregelamenduan (EE) ezarritako *de minimis* arauak errespetatuko dituzte (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

4.- Oinarriotan adierazitakoarekin bat, laguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

10. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- Eskaerak aurkezteko epea hiru astekoa izango da, oinarri hauen iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu —eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) horien laburpen bat publikatu— eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio edo kontsulta egiteko, 943 482 800 telefono zenbakira dei daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatzi, honako gai hau adieraziz: “**Ekinn+ Gastro 2024 programa**”. Donostia Sustapenaren webgunean adieraziko da publikoari erantzuteko ordutegia.

3.- Onuradunek laguntza eskaera egin ahal izango dute.

Dirulaguntza hori eskatzeko interesa duten enpresa edo erakunde guztiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio administratiboa

1. **Eskaeraren eranskina.** (1. eranskina)
2. Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen **NANA**.
3. Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen **IFKren** kopia, eta, hala egokituz gero, ahalduaren NANA, ordezkari izateko ahalordeekin batera.
4. Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen **banku datuen eranskina** (2. eranskina), dagokion banku entitateak zigilatuta, edo banku dokumentu baliokidea.
5. Esku hartzen duten administrazio publikoen artean datuen lagapena eta datu horien tratamendua onartzea, funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, betiere Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruzko 2021/241 EB Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera (**3. eranskina**).
6. Erantzukizunpeko adierazpena, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoari buruzkoa. (**4. eranskina**).
7. Erantzukizunpeko adierazpena, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa errespetatzeko konpromisoari buruzkoa (DNSH, *Do Not Significant Harm*),

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua (6) apartatua ezarritako zentzuan.

8. Estatu laguntzen bateragarritasun adierazpena eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.
9. Onuradunaren benetako titulartasunaren identifikazioa. Identifikazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua (6) puntuak definitzen duen zentzuan egingo da, betiere irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. **(5. eranskina)**.
10. Nolanahi ere, organo instrukzio egileari ahalmena ematen zaio programan parte hartzen duten pertsonen benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatzeko pertsona horiei, betiere Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak informaziorik ez badu eta hala adierazi badio MINERVA egiaztapen sistematik eratorritako bandera beltzaren bidez. Informazio hori instrukzio organoari aurkeztu beharko zaio, informazio eskaera egiten denetik 5 egun balioduneko epean. Informazio hori adierazitako epean ematen ez bada, prozeduratik kanpo geratuko da.
11. Deialdi honetako 4. artikuluko 2. puntuan jasotako iruzurraren aurkako planak baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzen direla adieraztea. **(6. eranskina)**.
12. Administrazioetik kanpoko langileen interes gatazkarik ezaren adierazpena **(7. eranskina)**.
13. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena **(8. eranskina)**.
14. Berriazko sarbide baimena ematea, bermatu ahal izateko Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek baliatzen dituztela beren kontrol eskumenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 129 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. **(Eskabide inprimakia)**
15. *De minimis* laguntzen txostena. Webgune honetan eskura daiteke: <https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNS CRT&TA=ANO>
16. Ingurumenari kalte nabarmenik (DNSH printzipioa) ez eragiteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena **(9. eranskina)**
17. Erantzukizunpeko adierazpena, finantzaketa bikoitzik ez dela adierazten duena. **(10. eranskina)**

Dokumentazio teknikoa:

1) **Memoria teknikoa.** Memoriak garatu beharreko jabetxe proiektu gastronomikoa deskribatuko du. Atal hauek izango ditu:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Enpresa eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak.
3. Proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa.
4. Proiektuaren eta helburuen deskribapen laburra. Proiektua gauzatzeko eta hazteko beharrak identifikatzea: finantzaketa, ekipoa areagotzea, aholkularitzako inbertsioa, inbertsioak, ekipamendua, eta abar.
5. Proposamen gastronomikoa.
6. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, eta espero diren emaitzak: helburuak; kronograma; adierazleak; garapen komertzialaren, finantzarioaren eta giza kapitalaren deskribapena; eta aurreikusitako ustiapen kontua (3 urteko epea).
7. Lantaldearen deskribapena (barukoa + kanpokoa), proiektuak zenbaterainoko langile eta ekipamendu indarra duen erakusteko.
8. Enpresaren eskalagarritasunean eta hazkundean egingo diren inpaktu potentziala (plantilla areagotzeko aurreikuspena, espazioak eta abar).

Memoria erraz eta argi idatziko da, eta saihestekoak izango dira proiektua ulertzea zailtzen duten teknizismoak. Informazio zehatza izango du, 13. artikuluan zehazturiko balorazio irizpideak baloratu ahal izateko. Gomendatutako gehieneko luzera 8 orrikoa da.

4.- Aurreko apartatuetan adierazitako dokumentaziorako, eskabidearekin batera dagozkion eranskinak aurkeztu beharko dira. Eranskinak osorik bete beharko dira. Sinadura behar duten agiriak elektronikoki sinatuta joango dira.

5.- Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

6.- Donostia Sustapenak beharrezko informazio guztia eskatu ahal izango du oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

7.- Agiriak aurkezteko epeak betetzen ez badira edo oinarri hauetan aurreikusitako beste edozein baldintza bete gabe geratzen bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da.

11. ARTIKULUA. ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

1.- Dokumentazio guztia aztertu ondotik, egiaztatzen bada eskabidea ez dagoela behar bezala beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari jakinaraziko zaio HAMAR (10) egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta prozedura artxibatu egingo dela 39/2015 Legearen 68. artikuluari jarraikiz emango den ebazpenaren ondoren.

2.- Zuzenketa egiteko eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak, organo instrukziogileak berriaz baimentzen duenean izan ezik.

3.- Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean onuradunek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela; horretarako, HAMAR (10) egun balioduneko epea izango dute, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

4.- Organo instrukziogileak argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

12. ARTIKULUA. INSTRUKZIORAKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAK

1.- Donostia Sustapena izango da laguntza hauen organo instrukziogilea, Donostiako Udalaren erakunde laguntzailea den aldetik.

Organo instrukziogileak ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak, dela administrazio betekizunak zehazteko, dela horien berri izateko eta egiaztatzeke, dela diruz lagun daitezkeen eskabideak balioesteko.

2.- Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusia, eta printzipio hauek hartuko dira oinarri: publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak betetzeko eraginkortasuna, eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Norgehiagoka bermatzeko, proiektuaren memoria teknikoa agiri baliozkotzat jotzen da proposamenak ebaluatzeke.

3.- Honela ebaluatuko dira aurkeztutako proiektu guztiak:

- Memoria teknikoa eta ekonomikoa baloratzea («Memoria teknikoa» eranskina), gehienez ere 100 puntu, eta gutxienez 65 lortu behar dira proiektua onartu ahal izateko.
- Elkarrizketa Donostia Sustapenarekin, batetik, proiektua eta talde sustatzailea zehatzago ezagutzeko, eta, bestetik, proiektuak adierazitako irizpideen arabera lortu duen hasierako balorazioa alderatzeko.

Proiektu bat onartzeko eta elkarrizketa fasera igarotzeko, nahitaez gainditu behar da memoria teknikoaren eta ekonomikoaren balorazioan eskatutako gutxieneko puntuazioa (65 puntu).

Ezaugarri hauetakoren bat duten tokiko proiektuak izan beharko dute:

- Sektoreko talentu gaztea sustatzea eta babestea dakartenak.
- Eskalagarritasun potentziala eta ibilbidea dutenak.
- Berrikuntza irizpideak jasotzen dituztenak.
- Gastronomiaren eremuan lurraldeari balioa ematen diotenak.

Proiektuak balorazio irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Proposamen gastronomikoa: proposamenaren berezitasuna, kontzeptuari, produktuari eta zerbitzuari loturik.	40 puntu
2. Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.	35 puntu
3. Enpresaren eskalagarritasunean eta hazkundean egingo diren gastuen inpaktu potentziala.	20 puntu
4. Proiektuan genero ikuspegia txertatzea: gehienez ere 5 punturekin baloratuko da proiektua gauzatzen duen plantillari berdintasunaren arloan gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa.	5 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100 puntu

Eskaera bat hautatu ahal izateko gutxienez 65 puntu lortu beharko dira; beraz, kanpoan geratuko dira gutxieneko puntuazioa baino txikiagoa lortzen duten proiektuak.

Donostia Sustapena harremanetan ipini ahal izango da gutxieneko puntuazio hori gainditzen ez duten baina 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuetako eskatzaileekin, proiektua behar bezala ulertu dela egiaztatzeko.

4.- Onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, eta irizpide horiek aplikatuz balioespenik handiena lortu dutenak esleituiko dira, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan finkatutako mugarekin.

Ebazpena emateko unean, 30.000 euroko laguntza emango da onetsitako proiektu bakoitzeko.

Berdinketa gertatuz gero bi eskaera edo gehiagoren artean, 1. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena dutenei emango zaie lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 2. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena duenari emango zaio lehentasuna, eta, berdinketak jarraitzen badu, 3. ebaluazio irizpidearen arabera. Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera lehenetsiko da.

Eskabideak aukeratzekoan, erreserba zerrenda bat eratu ahal izango da, puntuazioaren arabera ordenatuta. Hori horrela, erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo aurrekontua handitzen bada, Donostiako Udalak zerrenda horretako eskatzaileari dirulaguntza ematea onartu ahal izango du, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

5.- Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere 6 hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, onuradunek ulertu beharko dute ezetsi egin dela eskabidea.

Tokiko Gobernu Batzarraren berriazko ebazpen arrazoituaren bidez emango edo ukatuko da dirulaguntza, Ekonomiako eta Toki Enpleguko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izateko aukera alde batera utzi gabe.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

6.- Bai onuradunak hautatzeko eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozeduraren instrukzioan parte hartzen duten pertsonak, bai ebazpena emateko eskumena duen organoko pertsonak, interes gatazkarik eza bermatzen duen adierazpen bat sinatu beharko dute. Interes gatazka horiek alderatu egingo dira, kontuan harturik Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkako arriskuaren azterketa sistematikoari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzak.

13. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa 40.000 € baino handiagoa bada obrako egikaritze kostuaren kasuan, edo 15.000 € baino handiagoa bada ekipamendu ondasunak hornitzearen edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan, erakunde edo pertsona onuradunak **hiru eskaintza eskatu beharko dizkie enpresa hornitzaile desberdinei**. Eskaintza horiek justifikazio agirietan jaso beharko dira, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago hori hornitzen edo ematen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua eskabidea egin baino lehen egin bada.

Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jarduera diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100erainokoa izan daiteke.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunarentzat ezarritako betebeharrak guztiak exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie.

14. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETAK

1.- Laguntza bi zatitan ordainduko da, «Justifikazio partziala» eta «Amaierako justifikazioa» izeneko ataletan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2.- Organo instrukziogileak ofizioz egingo ditu dirulaguntza oinarri arautzaileetan jasotako helburuetarako erabili dela egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak.

3.- Laguntzaren ordainketa ez da inoiz izango laguntza ematerakoan onartutako zenbatekoa baino handiagoa.

14.1. JUSTIFIKAZIO PARTZIALA

1.- Justifikazio partziala Ekinn+ Gastro aholkularitzaren fase intentsiboaren ondoren aurkeztu ahal izango da; hau da, aholkularitzaren lehen 6 hilabeteak amaitzean.

2.- Ezinbestekoa izango da onuradunak laguntzaren eskaeran hartzen duen aholkularitzaren fase intentsiboan dedikazio konpromisoa beteta edukitzea.

3.- Justifikazio horretan, hauek ordaintzeko eskatu ahal izango da:

- Eskuragarritasun laguntza: 5.000 €. Eskuragarritasun laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, Ekin+ Gastro aholkularitza zerbitzuaren lehen 6 hilabeteen ondoren eta onuradunak hartzen duen dedikazio konpromisoa bete ondotik.

4.- Eskuragarritasun laguntza ordaintzea eskatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) **Eranskina: «Ordainketa Eskara»**

14.2. AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOA

1.- **Ekin+Gastro programan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetarako** (25.000 €), amaierako justifikazio bakarra aurkeztu beharko da, zeinak barnean hartuko baititu diruz lagundu daitezkeen laguntza onartu guztiak.

2.- Laguntzaren xede den jardura egikaritu, fakturatu eta ordaindu izana **2025ko azaroaren 15a baino lehen** justifikatu beharko da.

3.- Dirulaguntza agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko da:

- a) **Eranskina: «Justifikazioa».**
- b) **«Emitzen memoria» eranskina**, proiektuaren garapena deskribatzen duena eta enpresak lortutako emaitzak eta mugarrak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak egin eta ezarri zaizkiela frogatzeko behar diren ebidentziak jaso behar ditu, baita enpresaren hazkundera izan duen eragin positiboa ere, alderdi guztietan.
- c) **«Finantza Memoria» eranskina.**
- d) Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**.
- e) **Egindako ordainketen egiaztagiria.**

Egindako gastua justifikatzeko dokumentazio osagarria eskatu ahal izango da, baita Estatuko edo Europako araudiaren arabera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen beste edozein egiaztagiri edo txosten ere.

4.- Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

5.- Dokumentazio guztia aztertu ondoren, egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat —osorik edo partzialki— onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuak dituzten kontzeptuekin, justifikatutako jarduketei dagokien zati proportzionala baino ez da ordainduko.

15. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Onuradunek hainbat organok eginiko egiaztapenak bete beharko dituzte, hala nola laguntza eman duen administrazioarenak, Kontu-hartzailtza Nagusiari eta Kontu Auzitegiaren legerian aurreikusitakoei dagozkienak, eta Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoetako Kontu Auzitegiak egin ditzakeenak, baita Iruzzurren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, kasuaren arabera, Europako Fiskaltzak egin ditzaketanak ere. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko aukera emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluen arabera.

2.- Edonola ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzen gaineko jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egin beharko da Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezarritakoaren ildotik, eta nahitaez bete beharko dira, orobat, Europar Batasuneko barne araudiak informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta ebaluazioari loturiko obligazio espezifikoak, bai eta EBko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen diren eginbehar zehatzak ere, betiere haien aplikazioa nahitaezkoa den heinean.

3.- Funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, laguntzak ematen dituzten administrazioek datuen kategoria harmonizatuak bilduko dituzte formatu elektronikoa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

4.- Onuradunek formatu elektronikoa gorde beharko dituzte justifikazio agiriak eta finantzetari buruzko gainerako agiriak finantza eragiketaren saldoa ordaintzen denetik bost urteko epean, edo, bestela, hiru urteko epean, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, guztia ere Europako Parlamentuaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Finantza Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Era berean, gorde egingo dituzte auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzzurren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapideen gaineko erregistroak eta dokumentuak, harik eta errekurtso, auzi, erreklamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. Iruzzurren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko eginbeharra.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko, ontzat joko dira bai jatorrizkoak berak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoko hutsean ageri diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak direnean, ez da beharko jatorrizkorik, betiere agiri horiek aplikatzekoak diren legezko baldintzak betetzen badituzte, auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat har daitezten.

16. ARTIKULUA. EZ-BETETZEAREN ONDORIOZKO AMAIERA EDO HALABEHARREZKO AMAIERA. ITZULKETA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

1.- Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta eskatzekoak izango dira berandutze interesak, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, bai eta oinarri hauetan aurreikusitako kasu espezifikoetan ere.

2.- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira, eta, beraz, premiamendu bidetik eskatu ahal izango dira, itzulketa ez bada egiten zehazten diren epeetan.

3.- Onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako ekarpenaren zenbateko guztiak, baldin eta oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez-betetze astunak eta/edo errepikatuak egiten baditu. Besteak beste, ez-betetze astuntzat eta/edo errepikatutzat joko da aurkeztutako dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopiatzea, plagiatzea edo hirugarrenen eskubideak urratzea aurkeztutako proiektuaren bidez, eta abar.

4.- Era berean, itzultzeko arrazoi izango da ez betetzea DNSH printzipioa eta etiketa klimatikoaren ondoriozko betebeharrak.

5.- Dirua itzultzeko prozedura gauzatzeko, kontuan hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 41. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa, bai eta lege hura garatzen duen Erregelamenduaren 91. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarra izango da itzulketa erabakitzeko organo eskuduna, Ekonomiako eta Toki Enpleguko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izateko aukera alde batera utzi gabe.

6.- Halaber, aipatutako itzulketa kausaren bat gertatzen bada, onuradunak galdu egingo du jasotzeko daukan zenbatekoak kobratzeko eskubidea ere (halakorik balu, behintzat). Era berean, eskatzailea ezin izango da berriro programan aurkeztu.

7.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 56. artikuluan eta hurrengoetan eta lege hori garatzeko xedapenetan xedatutakoa beteko da. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaitu egingo dute administrazio bidea.

17. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzen Lege Orokorrearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak, eta berariaz aplikagarritzat joko dira ondorio horietarako, betebeharrak hauei erreferentzia eginez (nahiz eta horietara bakarrik mugatu ez):

- a) Laguntza diruz lagundutako kontzeptuetarako erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduaren eta denboraren barruan.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen

eta/edo ikuskapen jarduketak egin ahal izateko, betiere aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.

- d) Laguntza osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- f) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea gehienez ere 15 egun naturaleko epean.
- h) Eskabidea egiteko unean beste programa batzuetan parte hartzen ari diren edo Ekinn+ Gastro Programa garatzen ari diren bitartean parte hartuko duten proiektuek jakinaren gainean ipini beharko dute Donostia Sustapena.
- i) Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta uneko ekitaldi fiskalean jasotako gainerako *de minimis* laguntza guztiak aitortzea.
- j) Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia jakinaraztea.
- k) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
- l) Donostia Sustapenari laguntzea, beharrezkoa izanez gero, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
- m) Oinarri hauetako 6. eta 7. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- n) Onuradunak hartu-eman ekonomikoetan baliatzen dituen harremanetarako datuak, jarduera, merkataritza izena, logoa, marka eta bestelako zernahi bereizgarri baliatzeko baimena ematea Donostia Sustapenari, azken horrek enpresen direktorio digitaletan bildu ditzan. Horretarako, onuradunak elementu horiek ustiatzeko erabilera lizentzia ez-esklusibo bat emango dio Donostia Sustapenari, zeinak adierazitako xedeetarako bakarrik baliatuko baitu, erabilera baketsua bermatuz. Horrenbestez, berariaz baimendu beharko da oinarri hauetan hertsiki ezarritakoez bestelako edozein erabilera.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, *mailinga*, megafonia, seinaletika eta abar), sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta abarretan.

Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko hilean), betiere zerbitzuaren baldintzak eta

ezaugarriak betetzen badira.
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>)

- p) Erakunde finantzatzaileen erreferentziak eta logoak txertatu beharko dira material, euskarri eta espazio guztietan; hau da, Donostiako Udalarenak, Donostia Sustapenarenak eta Next Generation EUrenak, HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluari jarraikiz. Eskabidea onartzeko unean, Donostia Sustapenak nahitaez egin beharreko erreferentziak adieraziko dizkio onuradunari, tamaina, xedapena eta abar zehaztuta. Hauek izango dira nahitaezko erreferentzia horiek:
- q) “Donostia, esperientzia enogastronomiko jasangarri eta berritzailea” eta “Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana – Enogastronomia Plan Nazionala” proiektuaren barruko jarduera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatua eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatua.



r)

s)

- t) Aplikatzekoa den indarreko araudia errespetatzea, eta, bereziki, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena; arau horrek, beste hainba auziren artean, galarazi egiten du pertsonen sexuan oinarrituriko zuzeneko zein zeharkako diskriminazio oro.
- u) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio guztia hizkuntza inklusiboa baliatuz egitea eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabeta bermatzea.
- v) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta dirulaguntza eman duen administrazioak onartu duen Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzea. Halaber, erabat errespetatu behar dute iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari buruzko araudia —izan autonomia erkidegokoa, estatukoa edo Europakoa—. Era berean, erabat errespetatu behar dituzte Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruz erakundeek egiten dituzten adierazpenak ere.
- w) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datorrela, eta, beraz, bere gain hartu beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik eratorritako betebeharrak guztiak, bai eta finantzaketa horri aplikatu dakizkiokeen Erkidegoko edo nazioko gainerako arauetatik eratorritakoak ere. Inguruabar hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.
- x) Berriazko baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoari

(OLAF), Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen badu, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikulua 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko, eta haien mende jartzea berreskuratze- eta erresilientzia-planean sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak edo horiek aplikatzen esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak. Era berean, berariaz baimena ematea Batzordeari, OLAFi, Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen duenean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.

- y) Identifikazio datuak datu base batean sartzea, Parlamentuaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.
- z) Inplikaturako Administrazio Publikoen arteko datu lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluekin bat etorriz. Ildo horretan, funtsen azken hartzailearen informazioak eskuragarri egon beharko du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua arabera, eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garapen gisa.

2.- Horretaz gainera, erakunde onuradunek bete egin beharko dituzte Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko betebeharrak, europarrak zein nazionalak. Horretarako, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Diruz lagundutako jarduerak diseinatzean eta gauzatzean, egiten diren jarduerak errespetatu egin beharko dute kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (*Do No Significant Harm*, DNSH), Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/24 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraikiz, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio hori aplikatzeari buruzkoa, baita Kontseiluaren Egikaritze Erabakian (Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren Dokumentu Erantsian eskatutakoa ere.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartutako betearazpen neurriek ezin dute eragin kalte nabarmenik (DNSH) ingurumen arloko sei helburuei dagokienez:

1. Klima aldaketa arintzea.
2. Klima aldaketara egokitzea.
3. Ur baliabideen eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.

4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa.
5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta berroneratzea.

Onuradunak eta, kasuaren arabera, azpikontralistek Europako Erkidegoko eta Espainiako ingurumen araudia betetzen dela bermatuko dute, Gida Teknikoko (2021/C58/01) ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioaren arabera (DNSH printzipioa).

Era berean, jarduera osoa edo zati bat azpikontratatu zergo, erakunde onuradunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu ziurtatzeko azpikontralistek printzipioa betetzen dutela ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua zentzuan.

Bermatu ahal izateko erabat betetzen dela ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoa (2021/02/18ko Kontseiluaren 58. Betearazpen Erabakia, 1. or.), baztertu egiten dira jarraian zehazten diren jarduerak:

- i) Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien ondorengo erabilera barne.
 - ii) EBko Isurketa Eskubideen Merkataritza Araubidearen esparruko jarduerak, baldin eta aurreikusten bada eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak ez direla egongo dagozkien erreferentzia parametroen azpitik.
 - iii) Hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak.
 - iv) Hondakinen epe luzeko ezabatzea dela eta, ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak.
- b) Diruz lagundutako jardueren fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, jarduera bakoitzaren lorpen maila une oro ezagutu ahal izateko. Hirugarrenek garatu beharreko jarduketan kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzen lagunduko dutela ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea, eta hirugarren horiek Berreskuratze Planeko adierazle, mugarri eta helburu egokien balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematea, kasuak hala eskatzen badu.
- c) Espainiako erakundearen eta Europar Batasunaren kontrol jardueren mende jarriko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikulua arabera.
- d) Beren gain hartzen dute dirulaguntza honen esparruan egindako jarduketan auditoretza pista egokia mantentzea eta dokumentazio euskarriari eusteko betebeharra legez eska daitekeen epearen barruan.
- e) Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezartzen duen moduan emango da, estatuko eta Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritik.

- f) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta dagoenean, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikulua ere.
- g) Dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea bost urteko epean, saldoa ordaintzen denetik zenbatzen hasita —edo, ordainketarik ezean, eragiketaren unetik zenbatzen hasita—, edo hiru urteko epean, finantzaketa 60.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza araei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, gorde egingo dituzte auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko errekamazioen izapideen gaineko erregistroak eta dokumentuak, harik eta errekurtso, auzi, errekamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko eginbeharra.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko, ontzat joko dira bai jatorrizkoak berak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektroniko hutsean ageri diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak direnean, ez da beharko jatorrizkorik, betiere agiri horiek aplikatzekoak diren legezko baldintzak betetzen badituzte, auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat har daitezten.

- h) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarrita dagoenari jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsen azken onuradunek eta, kasuaren arabera, azpikontrastek aplikatzekoa zaien araudia bete beharko dute —Europakoa zein Espainiakoa—, eta bereziki bete beharko dituzte, orobat, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamendutik eratorritako eginbeharrak honako esparru hauetan: etiketa digitala eta berdea, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa, interes gatazkak saihestea, iruzurra, ustelkeria, finantzaketa bikoitzik ez egotea, estatu laguntzen arloko araudia betetzea, komunikazioa, datuen transferentzia, eta abar. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erantzukizunpeko adierazpenak «Konpromiso deklarazioa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez», bai eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko deklarazioaren eredia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez» ere.

18. ARTIKULUA. BATERAKO FINANTZAKETA

1.- Laguntza ekonomiko hauek batera finantzatu ahalko dira Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren barruan (**DONOSTIAKO AISIALDI ETA GASTRONOMIA ESPERIENTZIA JASANGARRIA ETA BERRITZAILEA**). Jarduera hori “Donostia, esperientzia enogastronomiko jasangarri eta berritzailea” eta “Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana – Enogastronomiako 2022ko Plan Nazionala” proiektuaren barruan dago, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia

Planaren esparruan gauzatu eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatu da.

19. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEIA

1.- Datuak babesteari buruz indarrean den araudiarekin bat etorritik, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie Donostiako Udalak bilduko dituela laguntzak izapidetu bitartean eta/edo horiek eman ondoren aurkeztutako edozein agiriren eta dagokion eskabidearen bidez ematen dituzten datu pertsonalak. Donostiako Udalak tratatzeko bilduko ditu datu horiek, eta hura izango da tratamenduaren arduraduna. Datuon kudeaketa, berriz, Donostia Sustapenak hartuko du bere gain, eta tratamenduaren eragile gisa jardungo du. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

2.- Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

3.- Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

4.- Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezko izan litekeen denbora guztian.

5.- Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

6.- Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

7.- Ukituriko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin ipini beharko da harremanetan (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Zure eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga

Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Edonola ere, lehen auzialdian, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko zaio erreklamazioa dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak berriaz onartzen dituela aurreko lerrokadetan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak, dagokion eskabidea aurkeztuz.

21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNETATIK SALBUESTEA

1.- Eskaerak aurkezteak esan nahi du interesdunek erabat onartzen dituztela oinarriok.

2.- Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak ez dute izango inolako erantzukizunik kontzeptu horiengatik.

Donostian, sinaduran ageri den egunean.